2016	Arabako Villabuenako Santa Maria kaleko hiri-azpiegiturak eta zoladura berritzeko proiektua idaztea	19.407,71 €	
2016	Arabako Villabuenako Santa Maria kaleko hiri-azpiegiturak eta zoladura berritzeko proiektuaren zuzendaritza eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa	21.767,90 €	

2000-2018 aldirian, AAri ez zitzaion enkargatu proiektuak idazteko edo obrak zuzentzeko lanik; DDDri⁶ 2.901,44 €-ko lana enkargatu zitzaion (gutzizkoaren % 1,11), eta BBBri 21.426,81 €-koa (gutzizkoaren % 8,18).

Hirigintzako aholkularitza teknikoko zerbitzuak eman zituzten aldia bakarrik kontutan hartuta, DDDri (2000) 2.901,44 €-ko lanak enkargatu zitzaizkion (gutzizkoaren % 46,28), eta BBBri (2000-2018) 21.426,81 €-koak (gutzizkoaren % 8,18).

Eltziegon, 2000-2018 aldirian, BBBk (2000-2007) eta CCCk (2007-2018) hirigintza-aholkularitza teknikoko zerbitzuak eman zituzten.

Proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko kontratuak, 2000. urtetik 2018. urtera arte, honako hauek izan ziren:

⁶XXX enpresaren bitartez, administratzaile solidarioa baita bertan (iturria: Axesor).



EGUNA	ENKARGU MOTA	AURREKONTUA	IZEN PROFESIONALA
2000	Jesukristoren Hezurak tumulua lekuz aldatzeko proiektua idaztea	67.241 pta.	
2000	Concepcion kalea, Barco kalea (2. fasea) eta albokoak urbanizatzeko erreforma idaztea	3.103.287 pta.	
2000	Extramuros Norte kalea urbanizatzeko proiektu osagarria idaztea	664.315 pta.	
2000	Extramuros Norte kalea urbanizatzeko proiektu osagarriaren zuzendaritza	3.848,37 €	
2000	Gallarza eta INVJS etxaldearen argiteria publikorako behe tentsioko instalazio elektrikoaren proiektua idaztea,	4.523,16 €	
2000	Gallarza eta INVJS etxaldearen argiteria publikorako behe tentsioko instalazio elektrikoaren proiektua idaztea,	4.523,16 €	
2000	Barco kaleko urbanizazioa eraberritzeko proiektua idaztea, 2. fasea	3.103.287 pta.	
2001	Florida eta Canton plazen urbanizazioaren zuzendaritza	1.741.615 pta.	
2001	Las Eras urbanizatzeko proiektua idaztea, 2. fasea	2.433.215 pta.	
2001	Barco kaleko azken zatia urbanizatzeko obra-zuzendaritza, 3. fasea	3.992,61 €	
2002	Las Eras urbanizatzeko proiektuaren zuzendaritza, 2. fasea	17.072,10 €	
2002	Barco kalearen azken zatia urbanizatzeko obra-zuzendaritza	14.628,93 €	
2002	Maisu-Maistren Etxea eraikina ekipamendurako birgaitzeko proiektua idaztea	17.836,00 €	
2003	Las Eras urbanizatzeko proiektuaren zuzendaritza, 2. fasea	14.717,33 €	
2003	Eltziegoko Las Eras kalearen urbanizazio-proiektua idaztea, 3. fasea	6.000,00 €	
2003	Extramuros Norte kalea urbanizatzeko proiektu osagarriaren zuzendaritza	3.317,56 €	
2003	Igerileku Zaharren kalea urbanizatzeko proiektua idaztea	4.045,00 €	
2003	Ospitale kalea eta albokoak urbanizatzeko proiektua idaztea	11.643,53 €	
2003	Ospitale kalearen urbanizazioa eraberritzeko obraren zuzendaritza	8.615,32 €	
2004	Igerileku zaharrak urbanizatzeko obra-zuzendaritza	5.602,23 €	
2004	Las Bodegas auzoko kaleak urbanizatzeko eraberritze-proiektua idaztea	6.281,35 €	
2004	Riscaleko Markesaren Oinordekoak etorbidearen eta ondokoan urbanizazioa eraberritzeko proiektua idaztea	8.444,31 €	
2005	Las Bodegas auzoko kaleen urbanizazioa eraberritzeko proiektua	8.896,35 €	
2005	Sasoikako langileen biltegiaren eta aterpetxearen proiektua	5.001,16 €	
2005	Antonio Diez Caballero Plazaren urbanizazioa eraberritzeko proiektua idaztea	3.878,11 €	
2005	Antonio Diez Caballero Plazaren urbanizazioa eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza	2.653,90 €	
2005	Udal igerilekuak eraberritzeko proiektua idaztea	7.845,93 €	
2005	Udal igerilekuak eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza	3.445,82 €	
2005	Riscaleko markesaren oinordekoak etorbidearen eta ondokoan urbanizazioa eraberritzeko obraren zuzendaritza	17.058,34 €	
2005	Igerileku Zaharren kaleko urbanizazio-proiektuaren zuzendaritza	4.829,51 €	
2006	Ikastetxe publikoaren estalkia eraberritzeko proiektua idaztea	16.150,00 €	
2006	Maisu-Maistren etxea birgaitzeko obraren zuzendaritza- arkitektoa	14.140,00 €	
2006	Maisu-maistren etxea birgaitzeko obra- aparejadorea	2.616,89 €	
2006	Udal igerilekuak eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza	3.997,15 €	
2007	Ikastetxe publikoaren estalkia eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza - arkitektoa	5.918,72 €	
2007	Ikastetxe publikoaren estalkia eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza - aparejadorea	8.137,00 €	
2008	Ospitale kalearen eta aldameneko kaleen urbanizazioa eraberritzeko proiektua idaztea	11.517,14 €	
2009	Ospitale kalearen eta aldameneko kaleen urbanizazioa eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza	15.395,03 €	
2009	Xabier Arizaga Mediterraneoko lorategiaren proiektua	24.000,00 €	
2009	Eltziegoko Mañuetako Bidea kalearen urbanizazioa eraberritzeko obraren zuzendaritza	8.774,54 €	
2009	Hilerrri inguruko ingurumen-jarduerak idaztea	5.332,60 €	
2009	Ibilgailu-aparkalekurako proiektua idaztea	8.083,14 €	
2009	Mayor ibaiaren gaineko pasabiderako eta iturria berrantolatzeko proiektua idaztea	15.215,70 €	
2010	Hilerrri inguruko ingurumen-jardueren zuzendaritza	4.923,82 €	
2010	Las Huertasera jaisteko kalearen eta Herrador kalearen urbanizazioa eraberritzeko obraren zuzendaritza	3.688,34 €	
2010	Bideak egokitzeko obraren segurtasun- eta osasun-azterlana, 2010. urtea	577,00 €	
2010	Bideak egokitzeko obraren segurtasuna eta osasuna koordinatzea, 2010. urtea	1.830,00 €	
2010	Mañuetako Bidea kalearen urbanizazioa eraberritzeko proiektua idaztea	7.448,76 €	
2010	Mañuetako Bidea kalearen urbanizazioa eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza	8.774,54 €	
2010	Mayor ibaiaren azterketa hidraulikoa	6.400,00 €	
2010	Eltziego eremuko paisaiaren tratamendua egiteko eta bideak egokitzeko proiektua	17.200,00 €	
2010	Jasotze topografikoak	1.570,00 €	
2011	Paisaia-tratamendurako begiratokia eta talaiak zimentatzeko azterketa geoteknikoa	2.055,10 €	
2011	Mayor ibaiaren gaineko pasabiderako eta iturria berrantolatzeko obraren zuzendaritza	14.922,12 €	
2011	Landa guneeetako pasealekuak egokitzeko obraren zuzendaritza	17.000,00 €	
2011	Udaletxea irisgarri egiteko eta birgaitzeko obraren zuzendaritza	2.150,00 €	
2011	Udaletxearen irisgarritasun eta birgaitze proiektua idaztea	5.200,00 €	
2011	Udaletxearen irisgarritasun- eta birgaitze-obraren zuzendaritza	3.150,00 €	
2011	Udal igerilekuaren mendealdeko aldea berriro itxeko proiektuaren idazketa eta zuzendaritza	2.700,00 €	
2011	Eskualdeko hezkuntza-zentroan eguzki-instalazio fotovoltaikoa jartzeko proiektua idaztea	1.850,00 €	
2013	Jesús Guridi kaleko eta hilerrriaren arteko espazioa urbanizatzeko proiektua idaztea	5.040,00 €	
2013	Jesús Guridi kaleko eta hilerrriaren arteko espazioa urbanizatzeko proiektuaren zuzendaritza	1.664,10 €	
2014	Irisgarritasun-plana	5.223,14 €	
2014	Zamalanetarako nasaren proiektua idaztea	6.714,66 €	
2014	Zamalanetarako nasaren proiektuaren zuzendaritza	8.564,59 €	
2015	Eltziegoko karga-nasaren proiektuaren zuzendaritza	10.363,15 €	
2015	Autokarabanentzako aparkalekuaren proiektua idaztea	1.785,00 €	
2015	Autokarabanentzako aparkaleku obraren proiektuaren zuzendaritza eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa	1.505,20 €	
2016	Udal igerilekuak eraberritzeko proiektua idaztea, Ordainsarien % 50	5.501,40 €	
2016	Udal igerilekuak eraberritzeko proiektua idaztea, Ordainsarien % 50	5.501,40 €	
2017	Udal igerilekuak eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza, Ordainsarien % 50	2.305,50 €	
2017	Udal igerilekuak eraberritzeko proiektuaren zuzendaritza, Ordainsarien % 50	2.305,50 €	
2017	Udal igerilekuak eraberritzeko proiektuaren obra-egikaritzaren zuzendaritza eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa	3.710,00 €	
2018	Kultur Etxea irisgarri egiteko proiektuaren idazketa eta zuzendaritza, % 50	3.224,13 €	
2018	Kultur Etxea irisgarri egiteko proiektuaren idazketa eta zuzendaritza, % 50	3.224,13 €	
2018	Kultur Etxea irisgarri egiteko proiektuaren zuzendaritza	2.438,00 €	
2018	Gallarza etxaldearen, Antonio Diez Caballero kalearen eta Mañuetako Bidea kalearen urbanizazioa eraberritzeko proiektuaren idazketa, zuzendaritza eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa.	68.970,00 €	



2000-2018 aldian, BBBri 31.725,22 euroko lanak enkargatu zitzaizkion (gutzizkoaren% 5,00), eta CCri 35.858,27 euroko lanak (gutzizkoaren% 5,65).

Hirigintzako aholkularitza teknikoko zerbitzuak eman zituzten aldia bakarrik kontutan hartuta, BBBri (2000-2007) 20.694,19 €-ko lanak enkargatu zitzaizkion (gutzizkoaren % 6,89), eta CCCri (2007-2018) 35.858,27 €-koak (gutzizkoaren % 10,49).

Moreda Araban, 2000-2018 aldian, BBBk (2000-2003), EEEK (2004-2007) eta CCCk (2007-2018) hirigintza-aholkularitza teknikoko zerbitzuak eman zituzten.

Proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko kontratuak, 2000. urtetik 2018. urtera arte, honako hauek izan ziren:

EGUNA	ENKARGU MOTA	AURREKONTUA	PROFESIONALA
2001	Luminariak berritzeko eta aireko lineak partzialki lurperatzeko proiektua idaztea	180.000 pta.	
2001	Luminariak berritzeko eta aireko lineak partzialki lurperatzeko proiektuaren zuzendaritza	850.677 pta.	
2001	Moreda Arabako kaleak urbanizatzeko proiektua idaztea, 3. fasea	880.000 pta.	
2003	Moreda Arabako kaleak urbanizatzeko proiektuaren zuzendaritza, 3. fasea	2.250 €	
2003	Kaleak urbanizatzeko proiektua, 4. fasea		
2003	Udaletxeko fatxadak txukuntzeko proiektua	2.648,44 €	
2005	Kaleak urbanizatzeko proiektua, 5. fasea	6.465,52 €	
2005	Udal pilotalekua itxeko proiektua	4.200,00 €	
2009	Gurutzeta kaleko 1. zenbakiko eraikina eraisteko proiektua		
2009	Eraikina eraisteko eta udalarentzat birgaitzeko proiektua idaztea	77.295,90 €	
2010	Gurutzeta kaleko 1. zenbakiko higiezina eraisteko obra-zuzendaritza	11.207,00 €	
2010	Higiezina udalarentzat birgaitzeko obra-zuzendaritza	14.793,00 €	
2011	Ei Vao bidetako galtzada konpontzeko proiektuaren idazketa eta zuzendaritza	4.366,56 €	
2014	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idaztea	64.072,98 €	
2016	Cerrada kalea eta Herrerias eta Santa Eufemia kaleen zenbait zati urbanizatzeko proiektua idaztea. Hirigune historikoko eta Las Cuevas kaleko mantentze-lanak. Linea elektrikoa lurperatzea Planilla kalean eta Udaletxeko plazaren inguruan	7.716,80 €	
2016	Cerrada kalea eta Herrerias eta Santa Eufemia kaleen zenbait zati urbanizatzeko proiektuaren zuzendaritza. Hirigune historikoko eta Las Cuevas kaleko mantentze-lanak. Linea elektrikoa lurperatzea Planilla kalean eta Udaletxe plazaren inguruan	3.307,20 €	
2016	Cerrada kaleko eta Herrerias eta Santa Eufemia kaleetako zenbait zati urbanizatzeko proiektuaren segurtasuna eta osasuna koordinatzea. Hirigune historikoko eta Las Cuevas kaleko mantentze-lanak. Linea elektrikoaren lurperatzea Planilla kalean eta Udaletxe Plazaren inguruan	1.200,00 €	
2017	Kutxeten eta erregistroen amaierako egoeraren topografikoa...	371,00 €	

2000-2015 aldian, BBBri 10.187,35 €-ko lanak enkargatu zitzaizkion (gutzizkoaren % 7,56), EEEri 4.200 €-ko lanak (gutzizkoaren % 3,12) eta CCCri 92.686,46 €-ko lanak (gutzizkoaren % 43,85).

Hirigintzako aholkularitza teknikoko zerbitzuak eman zituzten aldia bakarrik kontutan hartuta, BBBri (2000-2003) 10.187,35 euroko lanak enkargatu zitzaizkion (gutzizkoaren % 62,19), EEEri (2004-2007) 4.200 euroko lanak (gutzizkoaren % 39,38) eta CCCri (2007-2018) 81.662,46 eurokoak (gutzizkoaren % 77,07).



III. KONTRATAZIOA ETA LEHIA

2000-2018 aldian, honako hau izan da kontratuen arloko legeria:

- Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen testu bategina, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa⁷,
- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa⁸,
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa⁹,
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora¹⁰.

Arau horiek guztiek zenbait printzipio jartzen dituzte administrazio-kontratazioaren oinarri, hala nola parte-hartzeko askatasuna, berdintasuna eta lehia askearen babesa, honako hauek kontutan hartuta:

- 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako APKLTBk honako hau xedatzen du bere 11. artikuluan: «Herri-administrazioen kontratuek publizitate- eta lehia-printzipioak bete behar dituzte, lege honetan adierazitako salbuespenetan izan ezik; eta berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak, beti»..

- Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 1. artikulua honako hau xedatzen du: «Lege honen xedea da sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasun-printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioak eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak aldeztuz aurretik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintza hautatuz.

⁷ <https://www.boe.es/eli/es/rdlg/2000/06/16/2>

⁸ <https://www.boe.es/eli/es/l/2007/10/30/30/con>

⁹ https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2011/11/16/pdfs/BOE-A-2011-17887-E.pdf

¹⁰ https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2017/11/09/pdfs/BOE-A-2017-12902-E.pdf



- 30/2011 LegED bidez onartutako SPKLTBren 1. artikulua honako hau xedatzen du: «Lege honen xedea da sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasun-printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioak eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak aldeztetik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintza hautatuz».

- Indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duenak¹¹, honako hau ezartzen du 1. artikuluan: «Lege honen xedea da sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasun-printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioak eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak aldeztetik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintza hautatuz».

Horrela bada, printzipio horiek guztiak funtsezko balio gisa jasoko dira hurrengo araudietan, lizitazio publikoen gardentasuna eta lehia askea bermatzeko.

Hala aitortu zuen Auzitegi Gorenak ere 2000ko irailaren 19ko epaian, eta honako hau ezarri zuen: «Kontratista hautatzeko prozedurak legedian oinarrituta egon behar du, kontratista izateko gai diren eta kontratatzeko debekurik ez duten guztiei tratu berdina emango zaiela bermatzeko; izan ere, kontratazio-printzipio eta -prozedurek lehia askea sortu behar dute, publikotasunean oinarrituta, hori baita interes publikoaren bermerik handiena».

¹¹ https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2017/11/09/pdfs/BOE-A-2017-12902-E.pdf



IV. KONTRATU TXIKIAK

1. Kontratu txikiaren kontzeptua

Kontratu txikia 1995. urteaz geroztik agertzen da administrazio-kontratazioari buruzko araudian. Horrela bada, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 19ko 13/1995 Legeak kontratu txikiaren kontzeptua sartu zuen, eta zioen azalpenean kontratu mota hori sustatzeko ideia adierazi zuen, asmoa hartuta, zalantzarik gabe, Administrazioak era arin eta sinplifikatua izan dezan kontratuak esleitzeko, unean uneko premiei eta zenbateko txikikoei azkar erantzuteko, denboran luzatu gabe.

Hala adierazten da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zioen azalpenean ere: « lege berriak, nahitaez, kontratuen kudeaketaren arauketaren berrikuste orokor bat egiten du, arauketa hori soiltzearren eta arrazionalizatzearen eta entitate kontratatzailearen gaineko eta kontratatzaile partikularren gaineko kostuak eta kargak gutxitzearren. Berrikuspen horrek (...) eragin dio bereziki (...) esleipen- prozedurei ere, eta prozedura sinplifikatuen (prozedura negoziatua eta kontratu txikiei dagokiena) muga-kopuruak handitu (...)».

Unean-unean aplikagarri diren araudiek antzera kontzeptualizatu dute kontratu txikia. Kontratu txikiaren baldintzak honako hauen arabera laburbildu daitezke:

a. Zenbatekoa

2000. urteko APKLTBren 121. eta 201. artikuluek ezartzen zuten obra- edo zerbitzu-kontratu txikien zenbatekoa ezin zela 5.000.000 pezeta (30.050,61 euro) edo 2.000.000 pezeta (12.020,24 euro) baino handiagoa izan, hurrenez hurren.

30/2007 Legeak, 122. artikuluan, eta 2011ko SPKLTBk, 138. artikuluan, ezartzen zuten ezen kontratu txikien zenbatekoa 50.000 eurotik beherakoa izango zela obra-kontratuak direnean, edo 18.000 eurotik beherakoa beste kontratu batzuk direnean.

9/2017 Legearen 118.1 artikulua kontratu txikitzat jotzen ditu 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherako balioa dutenak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.



b. Kontratuen iraupen-epa eta prestazioa gauzatzeko epea

Araudian konstante bat izan da kontratu txikiek ezin dutela urtebete baino gehiago iraun, eta ezin zaiela luzapenik egin (2000ko APKLTBren 56. artikulua, 30/2007 Legearen eta 2011ko SPKLTBren 23.3 artikulua, eta 9/2017 Legearen 29.8 artikulua).

c. Publikotasuna

9/2017 Legearen aurreko araudiak ez zuen aurreikusten kontratu txikien publikotasuna. Lehen aldiz, 9/2017 Legearen 63.4 artikulua ezartzen du kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez hiru hilean behin argitaratu beharko dela Interneteko kontratatzailearen profilean.

Bost mila eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak ez dira argitaratu behar, baldin eta botere adjudikatzailerak erabiltzen duten ordainketa-sistema kutxa finkoko aurrerakina edo ordainketa txikiak egiteko antzeko beste sistema bat bada.

d. Izapideak.

2000ko APKLTBren 56. artikulua, 30/2007 Legearen 95. artikulua eta 2011ko SPKLTBren 11. artikulua ezarri zuten ez, kontratu txikietan, espedientea izapidetzeko, gastua onartu eta dagokion faktura sartu baino ez zela egin behar, eta faktura horrek lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete behar zituela.

Gaur egun indarrean dagoen 9/2017 Legeak kontratu txikiaren araubidea argitzen du, eta 118. artikuluan 2. zenbakian kontratu txikiek kontratazio-espediente propioa izateko eskakizuna jasotzen du. Espediente hori kontratazio-organoaren txosten batek osatuko du, kontratazko beharra justifikatzeko. Espedientean gastuaren onarpena eta faktura ere sartuko dira. Gainera, lege berriak betekizun gehigarri bat jasotzen du, hau da, txosten baten bidez justifikatzea kontratuaren xedea ez dela aldatzen kontratazioaren arau orokorrak saihesteko, eta kontratistak ez duela sinatu banaka edo orotara 1. zenbakiko atalaseak gainditzen dituzten kontratu txiki gehiago. Obra txikien kontratuetan, obren aurrekontua ere gehitu behar da; nolana ere, dagokion proiektuak ere egon beharko du arau espezifikoek horrela eskatzen dutenean.

9/2017 Legearen 118. artikulua hori kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Instrukzioaren xede izan da¹². Instrukzio hori Kontratazioa Arautzeko eta

¹² [https://www.boe.es/eli/es/res/2019/03/06/\(1\)/con](https://www.boe.es/eli/es/res/2019/03/06/(1)/con)



Gainbegiratzeko Bulego Independentearen¹³ 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenaren bidez onartu zen, eta kontratu txikien erregulazio berriari buruzko zalantzak argitzen saiatzen da. Dena den, gaur egun, administrazio-kontratazioko hainbat batzorde berriro interpretatzen ari dira Instrukzio hori.

2. Bidegabeko zatikapena

Kontratuak zatitzea, kontratu txikiaren irudia erabiliz, ohikoa izan da; batzuetan, administrazio-kontrataziora bideratutako baliabide nahikorik ez dagoelako, bereziki toki-korporazioetan, eta beste batzuetan, kontratazioaren plangintzarik ez dagoelako. Nolanahi ere, kontratuak zatikatzeak kontratazio publikoaren oinarriko printzipioen aplikazioa saihestea ekar dezake, batez ere, lizitazioetarako sarbide askearen, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta lehia askearen printzipioak.

30/2007 Legeaz geroztik, kontratu-legeriak berariaz debekatzen du kontratua zatikatzea kontratuaren zenbatekoa murrizteko eta, horrela, publikotasun betekizunak edo esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko. Beraz, kontratu txikiak denboran luzatzen ez diren premia puntualak daudenean kontratatzekeo tresna izan behar du, eta, horregatik, kontratu publikoaren modalitate hori arautzen duten xedapenek interpretazio zorrotza izan behar dute; bestela, urratu egingo lirarteke administrazio-kontratazioa inspiratzen duten printzipioak, aurreko 1. paragrafoan aztertuak: lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, publikotasuna, berdintasuna, gardentasuna, lehia askea babestea, etab.

Baina, gainera, kontratu txikia salbuespenez erabili behar da; izan ere, kontratu-legeriak ez du ohiko prozedura gisa hartzen, ohiko izaera hori prozedura ireki eta mugatuetarako baino ez baita gordetzen.

Kontratu bat zatitzeko debekua berariaz jasotzen da aztertutako aldian aplikatu beharreko araudietan:

2/2000 LegED, 68. artikulua: «2. Kontratu ezin da zatitu, kontratuaren zenbatekoa gutxitzeko, eta, horrela, bai publizitate-betekizunak, zein prozedura- edo esleipen-moduak saihesteko. 3. Kontratuaren xedeak zatiketarik onartzen badu, eta behar bezala justifikatu behar da hori espedientean, kontratuaren zati bakoitza banan egiteko aurreikuspena jaso daiteke espedientean bertan, kontratua zatika banatuz, bai parteok

¹³ Kide anitzeko organoa, zeinaren helburua baita legeria behar bezala aplikatzen dela zaintzea eta, bereziki, lehia sustatzea eta legez kontrakotasunei aurre egitea, kontratazio publikoaren arloan (9/2017 Legearen 332. artikulua).



banatuta erabili edo aprobetxatzeko modukoak badira, zein xedearen izaerak hala egitea eskatzen badu».

30/2007 Legea, 74. artikulua: «2. Kontratua ezin da zatitu kontratuaren zenbatekoa gutxitzeko eta publizitate-betekizunak eta esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko. 3. Kontratuaren xedekak zatitzea onartzen duenean eta espedientean behar bezala justifikatzen bada, zati bakoitza banan-banan gauzatzea aurreikus daiteke, kontratua lotetan zatituta, betiere loteok bereiz erabili edo aprobetxatzeko modukoak badira eta unitate funtzional bat osatzen badute, edo xedearen izaerak hala egitea eskatzen badu».

3/2011 LegED, 86. artikulua: «2. Ezin dira kontratuak zatitu beren zenbatekoa gutxitzeko, publizitate-baldintzak edota esleipen-prozedurari dagozkionak saihestearren. 3. Kontratuaren objektua zatitu ahal denean, eta espedientean behar bezala justifikatzen bada, zati bakoitza banan-banan gauzatzea aurreikus daiteke, kontratua lotetan zatituz, betiere loteok bereiz erabili edo aprobetxatzeko modukoak badira eta unitate funtzionala osatzen badute, edo objektuaren ezaugarriek hala egitea eskatzen badute».

9/2017 Legea, 99. artikulua: «2. Kontratua ezin da zatitu haren zenbatekoa gutxitzeko eta, horrela, dagozkion publikotasun-betekizunak edo adjudikazio-prozedurako betekizunak saihesteko asmoarekin. 3. Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta (...)».

1/2019 Instrukzioak ezartzen duenez, ezin izango dira kontratu txikien xede izan behin eta berriz egiten diren prestazioak, urtez urte erakunde kontratatzailearentzako beharizan berari erantzuten diotenak, prestazio horiek kontratazioa planifikatu eta prozedura arruntan bidez egin baitaitezke. Instrukzio horrek zehazten du justifikatu egin behar dela kontratuaren xedea zatitu ez izana; hau da, justifikatu egin behar da kontratuaren xedearen «unitate funtzionala» osatzen duten prestazioak ez direla bereizi kontratazio-arloko publikotasun-arauak saihesteko.

Zatiketaren inguruko doktrinak azpimarratzen du kontratu bakarra egongo dela subjektuaren, objektuaren eta kausaren elementuak bat datozenean. Gainera, kontratazioa behar bezala planifikatzeak kontratazio publikoa arrazionalizatzeko sistema bat ahalbidetuko dio kontratazio-organoari, zerbitzu jakin baten premia egonkorak identifikatu ondoren, hala nola proiektuak idaztearena, esparru-akordioak edo unitate-prezioen arabera kontratuak unean uneko egikaritzeen arabera antolatu ahal direnean. Horrek kontratazio publiko estrategikoa ahalbidetzen du, 2014ko



Erkidegoko Zuzentzaruetan eta indarrean dagoen Kontratuen Legean xedatutakoari jarraikiz.

V. GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAN EGINDAKO ENKARGUAK

Arkitektura-proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko kontratuak zerbitzu-kontratutzat hartzen dira.

Adierazi den bezala, LEA/AVC 122-SAN zehapen-prozeduraren esparruan izapidetutako informazio erreserbatutik ondorioztatu zen ezen kontratu txikiek lotutako jardunbide batzuk oztopo izan zitezkeela lizitazioetarako sarbide askearen, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta lehia askearen printzipioak betetzeko.

Hala, BBBri — udal-aholkularitzako lanak egin zituen aldian— txosten honetan aipatutako udalek % 5,45etik % 78,97ra bitarteko zenbatekoa zuten lanak enkargatu zizkieten. Lau udalek % 25etik gorako zenbatekoa zuten lanak enkargatu zizkieten, eta horietako hiruk % 50etik gorako zenbatekoa zuten: Mañueta, % 5,45; Eltziego, % 6,75; Villabuena Araba, % 9,71; Navaridas, % 25,41; Guardia, % 51,11; Leza, % 55,73; Moreda Araba, % 62,19; eta Samaniego, % 78,97.

Bestalde, CCCri —Udalarentzat aholkularitza-lanak egin zituen aldian— Udalek % 10,60 eta % 75,85 arteko lanak enkargatu zizkieten: Eltziego, % 10,60; Mañueta, % 12,79; eta Moreda Araba, % 75,85.

Azkenik, Moreda Arabako Udalak arkitektura-lanak egiteko agindu zion EEERI —honek Udalarentzat aholkularitza-lanak egin zituen aldian—, eta zenbatekoa udalak eskatutako lan guztien % 39,38 izan zen.

Lehen adierazi den bezala, 2000-2018 aldian indarrean zegoen kontratazio-arloko araudi guztiak honako hau ezarri zuen eta ezartzen du: kontratu bat ezin da zatitu haren zenbatekoa murrizteko eta, horrela, publikotasun-betekizunak edo esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko.

Txosten honen xede diren udaletan aztertutako kasuetan, ikusten da ezen kontratu asko udalek aurreikus ditzaketen prestazioen ondorio zirela —urbanizazioak, konponketak eta abar—; izan ere, kontratazioen historian behin eta berriz errepikatzen da zenbait arkitektura-zerbitzuri erantzuteko beharra. Hori dela eta, udalek, legearen espiritua eta agindua bermatze aldera, xede horrekin lotutako unitate bat eratu



beharko zuten, eta, ondorioz, kontratu bakar batean esleitu beharko zuten, eta dagokion esleipen-prozedurari jarraitu.

Hain zuzen ere, kontratu txiki bat zuzenbidearen aurkakoa da baldin eta kontratazio-organoak, kontratua izapidetzen hasteko unean, jada baldin badaki behar bezala definitutako eta urtez urte gauzatu beharreko prestazio unitario bat kontratatu behar dela, bai eta prestazio hori, egin behar dela jakin ez arren, arrazoiz aurreikusteko modukoa bada ere. Eta, horretarako, kontratazioa behar bezala **planifikatu** behar da. Plangintza horrek, kontratazioaren oinarri diren printzipioak hobeto errespetatzen laguntzeaz gain, funts publikoen erabilera eraginkorra bermatzen laguntzen du. Kontratazioa planifikatzeak prestazioak estaltzeko aukera desberdinak planteatzea ahalbidetzen du, bai eta kudeaketa-gastuetan aurreztea ere¹⁴.

Ondorioz, udalek aukera izan zuten eta, beraz, haien betebeharra izan zen plangintza egoki bat egitea arrazoiz aurreikus zitezkeen jarduketak egiteko, eta jarduketa horien proiektuen idazketa eta obren zuzendaritza kontratu bateratuetan kontratatzeko; hala, eskaintza anitza izango zen eta, ondorioz, funts publikoak eraginkortasun handiagoz erabiliko ziren, lehia askeari inolako oztoporik jarri gabe.

Horrenbestez, eta egoera hori zuzentzeko, kontratu txikia lege-aurreikuspeni jarraikiz erabil dadin, LEK honek Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Arabako udalei gomendatzen die lehia askerako oztopoak kentzeko udal horiek eskatutako arkitektura-proiektuak eta obren zuzendaritza-proiektuak idazteko merkatuan. Horretarako, beren jarduketak indarreko 9/2017 Legeak eta Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen 1/2019 Instrukzioak kontratu txikiei buruz ezarritakora egokitu beharko dituzte:

- zenbatekoa 15.000 €-tik beherakoa izan behar da,
- iraupena ezin da urtebetetik gorakoa izan, eta ezin da luzatu,
- profesional batek ezin ditu kontratu txikiak sinatu, baldin eta kontratu horiek, banaka edo batera, 15.000 euroko zenbatekoa gainditzen badute aurrekontu-ekitaldi bakoitzean,

¹⁴ ARENAS ALEGRÍA, Cristina Clementina. "Contratos menores. Limitaciones impuestas en la Ley de contratos del Sector Público de 8 de noviembre de 2017", *Revista General de Derecho Administrativo* (Iustel, 2019ko urtarrila).



- ezin dira kontratu txikien xede izan behin eta berriz egin behar diren prestazioak, urtez urte erakunde kontratatzailearentzako beharizan berari erantzuten diotenak, prestazio horiek kontratazioa planifikatu eta prozedura arrunten bidez egin baitaitezke,
- kontratuaren xedea zatitu ez dela justifikatu behar da,
- espedientean sartu behar dira kontratazio-organoaren txostena —kontratuaren beharra arrazoitzen duena—, gastuaren onarpena eta dagokion faktura,
- komeni da gutxienez hiru aurrekontu eskatzea, eta hori behar bezala egiaztatu beharko da espedientean,
- hiru hilean behin argitaratu behar dira kontratatzailearen profilean 5.000 euroko edo hortik gorako balio zenbatetsia duten kontratu txiki guztiak, eta honako hauek zehaztu beharko dira: xedea, iraupena, esleipenaren zenbatekoa eta esleipenduna.

VI. ONDORIOA

LEKek uste du Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Arabako udalek ez zutela planifikazio egokirik egin zentzuz aurreikusteko modukoak ziren udal-jarduketak egiteko, eta gehiegikeriaz erabili zutela kontratu txikiaren figura udalek eskatutako arkitekturako eta obrak zuzentzeko proiektuak idazteko merkatuan, eta, ondorioz, oztopatu egin zutela lehia askea merkatu horretan.

LEKek honako hau gomendatzen die Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Arabako udalei: udal horiek eskatutako arkitektura- eta zuzendaritza-proiektuak idazteko merkatuan lehia askerako oztopoak ken ditzatela. Horretarako, zentzuz aurreikusteko modukoak diren udal-jarduketak gauzatzeko plangintza egokia egingo dute, eta, ondorioz, kontratu txikiaren figura aurreikusi ezin diren jarduketetarako erabiliko dute. Hori guztia gaur egun indarrean dagoen araudiari jarraikiz egingo dute.